

## DBH3\_Balio etikoak\_PROGRAMAZIO LABURPENA

Irakaslea	Ibai Gonzalez Balentziaga Jone Usoz Ortiz	Maila	3.DBH	Ikasturtea	2021-2022
-----------	--	-------	-------	------------	-----------

### IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak Kontingentzia Plana izena daraman dokumentuan azaltzen dira [Kontingentzia Plana](#). Hirugarren eta laugarren egoeratan [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#) aplikatuko da.

**Balio etikoak** ikasgaia **hautazkoa** da. Bertan **giza duintasunerako, askatasunerako eta elkarbizitzarako balioak** lantzen dira nagusiki. Astean **Balio etikoak** ikasgaia **ordubetez** landuko dugu.

Ikasgaiaren **gai nagusiak** 3.DBHn hauexek izango dira: **adimen emozionala, giza eskubideen oinarri etikoak eta errealitatearen hausnarketa kritikoa**.

Ikastetxeak elkartasunarekin duen konpromisoari jarraituz (**Elkartasun eskolak** sareko kideak baikara), aurrean ere **Iturrama migranteekin** izeneko proiektua landuko dugu, **munduko errefuxiatuen eta etorkinen errealitatea** hobeto ulertzeko eta **herritar konprometituak** izateko.

Irakasleen posta elektronikoak honako hauek dira:

[igonzalbal@educacion.navarra.es](mailto:igonzalbal@educacion.navarra.es)

[jusozort@educacion.navarra.es](mailto:jusozort@educacion.navarra.es)

### OINARRIZKO GAITASUNAK

### UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	x
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	
3) Gaitasun digitala.	x
4) Ikasten ikastea	x
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	x
6) Ekimena eta ekintzailletza.	x
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	x

### ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

### EDUKIAK

#### [DBH CURRICULUMA](#)

#### 1. ebaluazioa

- Adimen emozionala

#### 2. ebaluazioa

- Giza eskubideak eta beren oinarri etikoak

#### 3. ebaluazioa

- Errealitatearen analisi kritikoa

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

### [DBH CURRICULUMA](#)

#### UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
12-13	Adimen emozionala	12-13	Giza eskubideak	10-11	Errealitatearen hausnarketa kritikoa

#### METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

- Metodologiari dagokionez, klasean talde dinamikak, talde-lana, eztabaidak, eguneko berriak komentatu, disertazioak (hausnarketa pertsonalak), proiektuak, jolasak eta ahozko aurkezpenak tartekatuko dira. Behar denean, IK/KI metodologia erabiliko da (ikaskuntza kooperatiboa).
- Baliabideak:
  - Irakasleak banatutako **apunteak**.
  - Zenbait **laburmetrai eta dokumental** ikusiko ditugu.
  - **Komunikabideak**, online-ko **entziklopediak** nahiz **interneta** erabiliko ditugu.
  - **Talde-dinamikak**.

#### PROIEKTUAK DBH:

- [DBH3. Iturrama Migratzaileekin](#)

#### EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

##### ZUZENKETA IRIZPIDEAK (GUTXIENKOAK)

1. Ideiak eta kontzeptuak, azterketetan zein lan kooperatiboetan, zuzenak eta gramatikalki ondo adierazita egotea.
2. Informazio iturri ezberdinak erabiltzea modu zuzen, kritiko eta autonomoan.
3. Landutako ideiak eta kontzeptuak sintetizatzen jakitea.
4. Landutako ideiak eta kontzeptuak analizatzen jakitea.
5. Landutako ideiak eta kontzeptuak partekatzen jakitea.
6. Sortze-lana egitea, norberaren ideiak eta ikasitakoa uztartuz hausnarketa pertsonalaren bitartez
7. Gai baten inguruan **argudiatutako iritzia ematen jakitea** eta aldi berean **besteen iritzia begirunez entzutea eta ulertzea**.
8. **Ebaluazio bakoitzean batz bestekoa egin ahal izateko**, beharrezkoa izanzen da irakasleak agintzen dituen proiektuak eta ariketak aurkeztea, eta proiektu eta ariketa horien noten batz bestekoa 5 batera iristea gutxienez, eta eginen diren azterketetan 4 bat gutxienez lortzea.
9. Lan kooperatiboa egiten dugunean, **jarrera aktiboa eta arduratsua** izatea.
10. **Bakarkako lanak egitean, lanak garaiz aurkeztea** (epetik kanpo aurkeztuz gero, penalizazioa egongo da. Hurrengo lerroetan azalduta dago).

#### KALIFIKAZIO SISTEMA (TRESNAK)

Ebaluazio bakoitzeko azken notaren osaketa:

**1.- lanak (galdetegiak, lan pertsonalak eta talde-lanak): notaren %60.**

**2.- lan ohiturak, jarrera eta portaera: notaren %40a.**

Atal honetan, ehuneko hau honela osatzen da:

**2A)- klasean egindako lana eta jarrera (%20)**

**2B)- etxeko lanak egitea (%20) (\*)**

(\*) Ebaluazio batean etxeko lanik egongo ez balitz, "etxeko lana" atalak notan izaten duen pisua (%20) "2A" (klaseko lana eta jarrera) izeneko atalari gehituko zaio, eta azken honek %20a balio beharrean, %40a balioko du.

**Ekaineko nota finala** gaindituztat emango da 3 ebaluazioetako noten batz bestekoa 5 batera iristen bada, beti ere 2 ebaluazio gutxienez gainditu baldin badira (2 ebaluazio suspenditu eta berreskuratu ez baldin badira, ez da batz bestekoa egingo).

#### **OHAR GARRANTZITSUAK:**

- **Elkarrekiko errespetua, klaseko lana eta parte hartze egokia izatea ezinbestekoak izanen dira ikasgaia gainditzeko (2A puntua). Azken finean, ikasgai honetan GAITASUN SOZIALA lantzen baita.**
- **Epez kanpo aurkeztutako lanek asko jota 5 bat jasoko dute, edukiaren eta aurkezpenaren aldetik gutxieneko baldintzak betez gero.** Irakasleak zehaztuko du noiz arte aurkeztu daitezkeen lanak (derrigorrez aurkeztu behar direlako). **Zehaztutako epetik kanpo aurkeztutako proiektuek, 0 eta 5 artean kalifikatuko dira, edukiaren eta kalitatearen arabera.**

#### **BOROBILTZEA**

**Ebaluazioko** nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

**Ikasturte bukaerako** nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

#### **ERREKUPERAZIO SISTEMA**

\* Errekuperazioa egitea derrigorrezkoa da ebaluazioa suspendituz gero, eta modu ezberdinetan egin ahal izango da (frogak, lanak etab.). Errekuperazioa ebaluazioa pasa eta gero egingen da (1. eta 2. ebaluazioetan). 3. ebaluazioa suspendituz gero, errekuperazioa ekaineko probetan egingen da.

\* 1. eta 2. ebaluazioen errekuperazioa(k) suspendituz gero, ikasleak ekaineko deialdian aurkeztu beharko du bere burua.

#### **EBALUAZIOETAKO ERREKUPERAZIOAK**

\* 1. eta 2. ebaluazioetako errekuperazioak nola eta noiz egin irakaslearekin adostuko da.

\* Baliteke azterketa gaindituta egotea, baina lanak aurkeztu gabe edo gaizki eginga izatea.

Kasu honetan, errekuperazioa egin gabe edo gaizki egindako lanak berriz egitea izanen da. Alderantziz ere gerta daiteke: lan guztiak aurkeztuak eta ongi eginak izatea, baina azterketa berreskuratu behar izatea. Edo biak berreskuratzeke egotea: azterketa eta lanak. Edonola ere, errekuperazioko nota suspenditutako ebaluaziokoa baino baxuagoa baldin bada, notarik altuena gordeko da.

#### **EKAINEKO NAHIKOTASUN PROBA**

\* Ekaineko Nahikotasun Probak Zuzendaritzak jarritako ordutegiaren arabera egingen dira.

\* 3. ebaluazioa suspendituz gero, errekuperazioa ekaineko proba hauetan egingen da.

\* Suspendituta eta ez-berreskuratutako ebaluazioen azterketak/proiektuak Ekaineko Proba hauetan ebaluatuko dira berriz. Kasu guztietan, ikasleak gaizki egin dituen edota bete ez dituen lanak eginak ekarri beharko ditu, edo azterketa teoriko bat egin beharko du gainditu gabe duen/dituen ebaluazio edota unitate didaktikoari buruz (kasuaren arabera).

\* **Nota finala:** gainditutako ebaluazioetako noten batz bestekoa izango da. **Bi ebaluazio suspenditu eta berreskuratu ez baldin badira, ikasgaia suspendituztat hartuko da.**

### **EZ-OHIKO DEIALDIA**

\* Ez-ohiko deialdi honetan, ikasleak suspenditutako ebaluazioa(k) gainditzeko azken aukera izango du, ebaluazioetako erreperazioak eta Ekaineko probetara **aurkeztu (eta ez gainditu) ondoren.**

### **KANPOKO EBALUAZIOA**

Ikasgai honetan ez da egiten.

**OHARRA:** Planifikazio honek aldaketak izan ditzake ikasturtean zehar, Filosofia Departamentuak beharrezkotzat jotzen badu.